

# LANBIDE-HEZIKETA

SALBUESPENAK, BALIOZKOTZEAK,  
BALIOKIDETASUNAK ETA HOMOLOGAZIOAK



2020ko IRAILA

# **AURKIBIDEA**

## **1. SALBUESPENAK**

1.1. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (FCT)

1.2. INGELES TEKNIKOA

## **2. BALIOKIDETASUNAK**

## **3. HOMOLOGAZIOAK**

## **4. GAINDITUTAKO MODULUEN KALIFIKAZIOAK ERAMATEA**

## **5. BALIOZKOTZEAK**

### **5.1. BALIOZKOTZEEN ARAU-ESPARRU OROKORRA**

5.1.1 - LOGSEtik eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak.

5.1.2 – LOEtik eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak.

5.1.3 - LOEren zikloetako EAeko modulu propioak baliozkotzea.

5.1.4 - Oinarrizko Lanbide Heziketako moduluak baliozkotzea.

### **5.2. BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK ESKATZEA: OINARRIZKO ESKEMA**

5.2.1- Alderdi orokorrak.

5.2.2- Baliozkotzeak ebazteko eskumena.

5.2.3- Izapidetze-prozedura.

5.2.4- Ebazpen-prozedura.

5.2.5- Errekurtsoak.

5.2.6-Baliozkotzeetan edo salbuespenetan atzera egitea edo horiei uko egitea.

### **5.3. BALIOZKOTZEEN ETA SALBUESPENEN GAINKO IRUZKINAK ETA ÑABARDURAK**

## **6. KONPETENTZIA-ATALEN ETA LANBIDE-MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA**

## **7. LANBIDE-MODULUEN ETA KONPETENTZIA-ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA**

## **8. ZIKLOEN ARTEKO BALIOZKOTZE “GURUTZATUAK”**

## **LABURPEN-TAULAK**

## **ERANSKINAK: MODULU MOTEN ARABERAKO TAULAK**

Gaur gaurkoz oraindik ere 2/2006 Lege Organikotik eta 1/1990 Lege Organikotik eratorritako heziketa-zikloak batera existitzen dira trantsizio-garai honetan. Gainera, LOMCE argitaratu da, Oinarrizko Lanbide Heziketa ezarri eta Lanbide Heziketari loturiko hainbat alderdi nabarmen aldatzen dituena.

Halaber, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan jasotako xedapenen aplikazioa eteteak sortu zuen egoera bitxia desagertu egin da, dekretu hori 2015eko irailaren 1ean guztiz indarrean jarri ondoren. Alabaina, ez da argitaratu horren ordezkoko araurik, LOMCEk eragindako berritasunekin bat datorrenik.

2014ko azaroaren 20an, azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Agindua argitaratu zen —urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez aldatua—, trantsizio-aldi horretako baliozkotzeen esparrua arrazionalizatzeko. Era berean, 2016ko otsailaren 10ean, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretua argitaratu zen, EAEko Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua aldatzeko.

Baliozkotzeen gaiari Oinarrizko Lanbide Heziketa ezartzeko 127/2015 Errege Dekretuak eta EAEko 86/2015 Dekretu korrelatiboak heltzen diote.

Jarraibide hauek, bestalde, Hezkuntzako Ikuskaritzarekin eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuarekin (EEI-IVAC) batera osatu dira. Haien bidez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen baliozkotzeei buruz indarrean dagoen araudiaren zenbait alderdi interpretatu eta argitu nahi dira, bai eta arauan esplizituki jaso ez diren egoera jakin batzuk zehaztu ere, ikastetxeei zalantzak eragiten dizkietenez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko iraila.



M<sup>a</sup> TERESA RUIZ LÓPEZ

**HEZKUNTZAKO IKUSKARI ZENTRALA**

# LANBIDE-HEZIKETA

## SALBUESPENAK, BALIOZKOTZEAK, BALIOKIDETASUNAK ETA HOMOLOGAZIOAK

### 1. SALBUESPENAK

**Salbuespenak** ondorio akademikoak ditu. Modulu edo jakintzagai jakin bat egitetik salbuetsita egotea da, indarrean dagoen araudiak jasotako arrazoiak direla medio.

Lanbide-modulu hauetatik salbuetsita egon ahal izango da:

#### 1.1. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA (FCT)

Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua lan-esperientziarekin bat datorrela-eta, osorik edo partzialki salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta lanaldi osoko urtebeteko esperientzia egiaztatzen bada dagozkion lanbide-ikasketekin lotuta (*azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.1.e artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan*).

Zentroko zuzendariak ebazpen arrazoitu baten bidez onartu edo ukatuko du salbuespena. Ebazpen horren kopia ikaslearen espediente akademikoari erantsiko zaio (*2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 12. artikulua*).

Lan-esperientziaren bidez hartutako kompetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia.

a. Soldatako langileak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatutako mutualitatearen ziurtagiria, jasota dauzkana enpresaren izena, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia;

eta, era berean, lan-esperientzia zer enpresatan eskuratu duten, enpresa horren lan-kontratua edo ziurtagiria, kontratuaren iraupena, egindako jarduera eta jarduera hori egiten emandako denbora espezifikoki ageri direna.

b. Langile autonomoak edo norberaren konturako langileak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, jasota dauzkana Gizarte Segurantzaren dagokion araubide berezian alta-egoeran egondako aldiak;

egindako jarduerak eta jardunean emandako denbora-tartea.

c. Borondatezko langileak edo bekadunak:

Laguntza eman dioten erakundearen ziurtagiria, non datu hauek jasoko baitira zehazki: zer jarduera eta funtzio egin dituzten, zer urtetan egin dituzten eta guztira zenbat ordu eman dituzten.

Bai salbuespen osoa, bai partziala, matrikulatzen den unetik bertatik aitor dakioko ikasleari, eta epe nahikoa eman beharko du dagokion amaierako ebaluazioaren data baino lehen ebatzi ahal izateko, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikuluari jarraikiz (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatu zuen lehen dekretu hori). Salbuespen partzialari dagokionez, ebazpena Lantokiko prestakuntzako tutoreari ere jakinaraziko zaio, eta bertan salbuespen partzialaren ordu kopurua ere eman beharko da aditzera (2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 12.3 artikulua).

Modalitate dualean heziketa-zikloren bat hasita edo amaituta duen ikaslea Lantokiko prestakuntzako modulutik salbuetsita egongo da.

## 1.2. INGELES TEKNIKOA

### 1.2.1. Entzuteko desgaitasunen bat duten ikasleak

Curriculumaren egokitzapenei eta salbuespenei buruzko 2012ko irailaren 10eko Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideekin bat etorritik, derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren ondokoan, EAEko Ingeles teknikoko modulu propioetik osorik edo partzialki salbuetsita egoteko aukera dute **entzuteko desgaitasunen** bat duten ikasleek.

Salbuespenak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari eskatuko zaizkio, Lanbide Heziketako zuzendariak 2013ko otsailaren 15ean emandako jarraibideek ezarritako prozeduraren arabera.

#### Lanbide Heziketan salbuespenak eskatzeko prozedura:

- a) Legezko ordezkariak edo interesdunak berak, adinez nagusia bada, zentroko zuzendaritzaren bitartez eskatuko du salbuespena, betiere irakasle tutorearen eta zentroak izan dezakeen orientazio-zerbitzuaren aholkuarekin eta, hala badagokio, dagokion Berritzeguneko zerbitzu eskudunaren aholkuarekin, eta desgaitasun-mailaren egiaztatzea atxiki beharko dio eskabide horri, baita eskaera arrazoitzen duen ikaslearen desgaitasunari buruzko txosten medikoa ere, hala badagokio. Eskabide horretan zehaztu beharko da zer salbuespen mota eskatzen den, osoa edo partziala, baita arrazoi beragatik lehenago salbuespenik izan duen ere.
- b) Zentroko zuzendaritzak salbuespen-eskaera igorriko dio Lanbide Heziketako eskualdeko unitateari, eskatutako agiriei atxikita salbuespenaren egokitasunari eta komenigarritasunari buruz Berritzeguneko zerbitzu eskudunak egingo duen txostena.
- c) Lanbide Heziketako eskualdeko unitateak jaso beharko du Hezkuntzako Ikuskaritzak eskabidearen legezotasunari buruz egingo duen txostena. Txosten horretan egiaztatu eta adierazi beharko da ikasleak lehenago ere salbuespenik edo curriculum-egokitzapen garrantzitsurik izan duen jakintzagai horretan.
- d) Lanbide Heziketako eskualdeko unitateak izapidetuko du salbuespen-eskabidea Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren aurrean, eta azken horrek, ebazpen baten bitartez, eskaera baimendu edo ukatuko du. Ebazpen hori zentroari igorriko zaio, eta bertako zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ebazpena ikaslearen legezko ordezkariari edota interesdunari berari, adinez nagusia bada.
- e) Halaber, ebazpen hori ikaslearen espedientean jasoko da.

### 1.2.2. EAEko arau propioetan aurreikusitako bestelako kasuak.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan adierazitakoaren arabera (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatu zuen lehen dekretu hori), pertsona hauek eska dezakete salbuespena:

- 21 urtetik gorako pertsonak, baldin eta 3 urteko lan-esperientzia dutela egiaztatze moduan badira eta bai uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan aurreikusitako prozeduraren bidez edo Enplegurako Lanbide Heziketaren sistemaren bidez egiaztatuta badituzte konpetentzia-atalak (konpetentzia egiaztatze egitura) edo gaituta badituzte heziketa-zikloaren iraupen osoaren gutxienez erdia osatzen duten lanbide-moduluak (enplegurako prestakuntza).
- Heziketa-zikloan lehendabizikoz matrikulatzen diren urte natural horretan, gutxienez 45 urte beteta dituzten pertsonak.

Halakoetan, ikaslea matrikulatuta dagoen hezkuntza-zentroko zuzendariak emango du salbuespena.

## 2. BALIOKIDETASUNAK

**Baliokidetasunak** amaitutako ikasketen truke bakarrik ematen dira. Ezagutza publikokoak dira, BOEn argitaratzen direnez. Horren bidez, titulu jakin batek (edo interesdunak gainditutako ikasketa multzo batek) beste baten ondorio berdinak dituela aitortzen da. Edonola ere, **baliokidetasunak ez du egungo titulua** edo titulu baliokide bat **eskuratzeko eskubiderik ematen**.

Baliokidetasunaren ondorioak.

- Lan-arlokoak. Berriazko aitortza horren bidez, prestakuntza baliokideek laneratzeko aukera berdinak eskaintzen dizkiote ikasleari. Normalean, «BALIOKIDEA, ENPLEGU PUBLIKO EDO PRIBATUETAN SARTZEKO ONDORIOETARAKO» aipamena egiten da. Ez du araupeko lanbideei dagokiena nahitaez emango, berriaz adierazi ezean.
- Akademikoak. Ikasketekin jarraitzeko, baliokide iritziko zaie ikasketa-maila berdineko tituluei.

TITULAZIOA (1955EKO LEGEAN JASOTAKO IRAKASKUNTZAK)	TITULAZIO BALIOKIDEA (1970EKO LEGEAN JASOTAKO IRAKASKUNTZAK)	ONDORIOAK	EREMUA	ARAUA
INDUSTRIAKO OFIZIALA (industria-ikaskuntza).	TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak).	Ondorio guztietarako (akademikoak eta profesionalak).	Orokorra	1975eko azaroaren 21eko Agindua (azaroaren 25eko BOE).
INDUSTRIAKO MAISUA (industriako maisutza)	TEKNIKARI ESPEZIALISTA (bigarren mailako Lanbide Heziketa edo III. mailako modulu esperimentalak).			

TITULAZIOA (1970EKO LEGEAN JASOTAKO IRAKASKUNTZAK)	TITULAZIO BALIOKIDEA (ONDORENGO IRAKASKUNTZAK)	ONDORIOAK	EREMUA	ARAUA
TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak).	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	Akademikoak	--	Lege Organikoa
TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (lehen mailako Lanbide Heziketa edo II. mailako modulu esperimentalak).	TEKNIKARIA (erdi-mailako heziketa-zikloak, LOGSE/LOE).	Profesionalak	Espezifikoa	Ikus oharra (*)
TEKNIKARI ESPEZIALISTA (bigarren mailako Lanbide Heziketa edo III. mailako modulu esperimentalak).	GOI-MAILAKO TEKNIKARIA (goi-mailako heziketa-zikloak, LOGSE/LOE).	Ondorio guztietarako (akademikoak eta profesionalak).	Espezifikoa	Ikus oharra (*)

(\*) 777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Lanbide Heziketaren ordenamenduko zenbait alderdi garatzen dituena hezkuntza-sistemaren esparruan (maiatzaren 8ko BOE), eta bere II. eta III. eranskinetan ezartzen dituena teknikari laguntzailearen eta teknikariaren tituluaren arteko eta teknikari espezialistaren eta goi-mailako teknikariaren tituluaren arteko baliokidetasun ZEHATZAK.

LOGSEtik eratorritako heziketa-zikloen eta LOEtik horien ordean eratorritako heziketa-zikloen arteko baliokidetasunak LOEren titulu bakoitzean jasota daude.

### 3. HOMOLOGAZIOAK

Unibertsitatez kanpoko atzerriko tituluak, diplomak edo ikasketak **homologatzeak** esan nahi du indarrean dagoen Espainiako hezkuntza-sistemaren tituluekiko baliokidetzat jotzen direla, ondorio akademiko eta profesional guztietarako. Erkidego honetan, Hezkuntza Saileko Ikasketen Antolamendurako Zerbitzuari eskatu behar zaizkio.

Atzerriko ikasketak unibertsitatez kanpoko Espainiako kurtsoekin edo Espainiako ikasketa partzialekin baliozkotzeak (esparru honetan, lanbide-moduluen arabera) haiek azken horiekin baliokideak direla finkatzen du, Espainiako ikastetxe batean ikasketak jarraitzeko. Baliozkotu nahi diren ikasketen hezkuntza-mailarako zuzeneko sarbidea aitortzea ere eragiten du (alegia, sarrera-egiaztapenik behar izan gabe), izan baliozkotzea egingo den heziketa-zikloak edo maila berdin edo beheragoko batekoak. Hau da, heziketa-ziklo bateko zenbait moduluren baliozkotze partziala eginez gero, ikasleari ez zaio eskatuko dagozkion edo maila baliokideko irakaskuntzetarako sarbide-betekizunak betetzea, horietan ikasketak jarraitzeko.

Tituluak homologatzen edo ikasketak baliozkotzen dituzten aginduen edukia banakako kredentzialetan bilduko da, eta interesdunei emango zaizkie eta Espainiako hezkuntza-sistemako ikasleei eskatutako agirien ondorio akademiko berak izango dituzte, betiere dagozkion ikasketak gainditu izana egiaztatzeko edo, halakorik ezean, dagozkion Espainiako titulua badaukala egiaztatzeko.

Ikastetxeek BALDINTZAPEAN ONAR ditzakete ikasleak, baldin eta haien baliozkotze- edo homologazio-espeditentek, abiarazita egonik, ebazteke badaude.

BALDINTZAPEKO INSKRIPZIOAN, aintzat hartuko da 1988ko martxoaren 14ko Aginduaren 10. apartatua, zeina 1996ko apirilaren 30eko Aginduaren eta abenduaren 16ko ECD/3305/2002 Aginduaren bidez aldatu baitzen:

*5. Hauek dira baldintzapeko inskripziorako BOLANTEaren indarraldiaren gehieneko epeak:*

- a) Baldintzapeko inskripziorako, sei hilabete, Erregistro Unitatean zigilatu zuten datatik aurrera.*
- b) Behin baldintzapeko inskripzioa eginda, BOLANTEA indarrean egongo da inskripzioa egin den ikasturtean, eta amaierako ebaluazioaren akta izenpetzen den egunera arte.*

*Hala ere, aurreko paragrafoetan adierazitako epeak igaro ondoren, eta eskatzaileari egoztekoak ez diren arrazoiak medio, homologazioaren edo baliozkotzearen eskaerak ez badu ebazpen espresurik jaso, prozedura izapidetzeko organo eskudunak beste BOLANTE bat eman ahal izango dio interesdunari, ofizios edo interesdunak eskatuta. BOLANTE berria zuzenean igorriko zaio ikaslea matrikulatuta dagoen zentroari, eta indarraldia idatziz jasoko du, ezingo dena izan ikasturte batetik gorakoa.*

*6. Saileko Idazkaritza Nagusi Teknikoak bolantearen indarraldi-epeak luza ditzake, oro har, baldin eta neurri hori justifikatzen duten inguruabarrak badaude; horretarako, agindu honen azken xedapenetatik lehenean adierazita dauden jarraibideak beteko ditu, eta ez da banakako beste bolanterik egin behar.*

*Aldeko ebazpenik aurkeztu ezean, hurrengo ikasturtearen amaierako ebaluazioa egitean erregularizatu behar da egoera; hau da, matrikula baliogabetu, eta ikaslea aktatik kanpo utziko da.*

**Ohar garrantzitsua: komeni da zentroak baldintzapeko inskripzioen aldi behingo segimendua egitea.**

Unibertsitatez kanpoko atzerriko ikasketen homologazio osoak eta partzialak izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sortu duen **aplikazio informatikoa erabiliko da**. Prozedura horri buruzko informazioa EJKo Hezkuntza Sailaren webgunean dago:

<http://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-irakaskuntzako-atzerriko-titulu-eta-ikasketak-homologatu-eta-baliozkotzea/web01-a3hakade/eu/>

## 4. GAINDITUTAKO MODULUEN KALIFIKAZIOAK ERAMATEA

Kode berdinak, izendapen berdinak, amaierako ahalmen edo ikaskuntza-emaitza berdinak eta eduki zein iraupen berdinak dituzten LOEren heziketa-zikloetako lanbide-moduluei modulu berdin iritziko zaie, edozein dela ere dagokien heziketa-zikloa. Hala, gainditutako lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioak eramango dira aipatutako modulu horiek jasotzen dituzten zikloetan edozeinetara (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.10 artikulua eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.4 artikulua).

Kode berdina duten EAEko modulu propioetan ere (Ingeles teknikoa) irizpide hori bera aplikatuko da.

Kalifikazioa batetik bestera eramateko ez da beharrezkoa interesdunak hori eskatzea, **ofizioz** egingo da-eta.

Kalifikazioa batetik bestera eramateko, **gaindituta** eduki behar da dagokion moduluak. Horrenbestez, ikasleren batek agortu egin baditu modulu bateko deialdiak, ezin izango zaio kalifikazioa batetik bestera eraman, eta, beraz, beste heziketa-ziklo batean egin beharko du moduluak.

## 5. BALIOZKOTZEAK

**Baliozkotzeak** baliozkoak dira ondorio akademiko eta laboraletarako, eta hezkuntza-sisteman sartu daitezke, dagokien mailan. Baliozkotzeetan, prestakuntza bat gaindituta dagoela berresten da, beste bat aurkeztuta. Heziketa-zikloen osagai diren lanbide-moduluak bakarrik baliozkotu daitezke. Honako hauek baliozkotzea eskatu daiteke:

- Heziketa-ziklo desberdinetako lanbide-moduluak.
- Bestelako irakaskuntzak eta/edo egiaztapenak eta heziketa-zikloetako lanbide-moduluak.

Hauek ematen dituzte:

- Ikaslea matrikulatuta dagoen hezkuntza-zentroko zuzendariak, baldin eta indarreko arauetan aitortuta badaude (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikulua eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 1. artikulua).
- Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak, baldin eta indarreko araudian jasota ez dauden gutxieneko irakaskuntzen lanbide-moduluak baliozkotzeak badira (ikusitako dokumentuaren 5.1.1.C, 5.1.2.D eta 5.1.2.E atalak).

### 5.1. BALIOZKOTZEEN ARAU-ESPARRU OROKORRA

#### 5.1.1 – LOGSEtik eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikotik (LOGSE) eratorritako heziketa-zikloen batean matrikulatuta dagoen ikasleak honako arrazoi hauek direla medio eskatu ahal izango du baliozkotzea:

A. LOGSEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu duela egiaztatzen badu.

Balitzeko baliozkotzeak jasotzen dituzte, batetik, apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuak (1998ko maiatzaren 8ko BOE) eta 2001eko abenduaren 20ko Aginduak, zeinak Hezkuntza



Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikotik (LOGSE) eratorritako lanbide-heziketa espezifikoko ikasketen baliozkotzea zehazten baitu, eta, bestetik, arau horren hutsak zuzentzeko ECD/1842/2002 Aginduak; aipatutako agindua indarrean jarri baino lehen argitaratutako tituluen kasuan.

LOGSEtik eratorritako heziketa-zikloen arteko baliozkotzeak, 2002ko uztailaren 9aren ondoren argitaratutako tituluen kasuan, azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren I. eranskinean daude jasota (urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntza).

Erkidego honetako LOGSEren modulu espezifikoetarako (Hizkuntza teknikoa eta KEH), apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan (1998 maiatzaren 8ko BOE) adierazitako formulazio orokorra aplikatuko da. Izen, iraupen eta amaierako ahalmen berdineko moduluak baliozkotzeko irizpide orokor bat xedatzen du.

- B. LOEren ziklo bateko Laneko prestakuntza eta orientabideko moduluak gainditu duela egiaztatzen badu.

LOGSEren babeseko erdi-mailako tituluen Laneko prestakuntza eta orientabideko lanbide-moduluak baliozkotu daitezke, LOEren erdi-mailako edo goi-mailako titulu baten Laneko prestakuntza eta orientabideko edozein modulu aurkeztuta.

Ezinezkoa da LOGSEren babeseko goi-mailako tituluen Laneko prestakuntza eta orientabideko moduluak baliozkotzea, LOEren babeseko tituluen Laneko prestakuntza eta orientabideko moduluak aurkeztuta. (ECD/2159/2014 Aginduaren bigarren xedapen iragankorra, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntza).

**A eta B atalen** baliozkotzeak EBAZTEKO **eskumena** ikaslea matrikulatuta dagoen hezkuntza-zentroko zuzendariarena da.

- C. Honako hauek egiaztatzen baditu:

- LH1 edo LH2 tituluak, abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen babesean ezarriak. (1)
- LOEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.

**C** ataleko baliozkotzeak EBAZTEA, berriz, **Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioari dagokio**, hezkuntza-zentroaren bitartez. Baliozkotze-eskaera izapidetzean, aurrerago azalduko den prozedurari jarraituko zaio.

### 5.1.2 – LOEtik eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak.

2/2006 Lege Organikotik (LOE) eratorritako lanbide-heziketako irakaskuntzak baliozkotzeko eskaerak honako arau hauetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- ECD/2159/2014 Agindua, azaroaren 7koa (2014/11/20ko BOE), zeina urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez aldatu baitzen (2017/11/02ko BOE).
- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa; hain zuzen ere, errege-dekretu horren 38. eta 40. artikulua.
- EAEn horren pareko araua eman zen, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua (27. eta 27 bis artikulua).

Arau horiez gain, titulu bakoitzak, dagokion araudian, berariazko kasu guztiak jasotzen ditu:

- *Titulu bakoitzaren errege-dekretu arautzailea, IV. kapitulua, 14. eta 15. artikulua, erdi-mailako zikloetan, eta 15. eta 16. artikulua, goi-mailako zikloetan (baliozkotzeak eta salbuespenak eta egokitasunak) , eta IV. eranskina. V. A) eranskinean daude jasota zer kompetentzia-atal egiaztatzeak ematen duen aukera dagozkion moduluak baliozkotzeko.*
- *EAEko curriculumen dekretu arautzaileak, IV. kapituluan eta V. eranskinean heziketa-ziklo bakoitzaren baliozkotze espezifikoa jasotzen dituztenak (9. artikulua, erdi-mailako zikloetan, eta 10. artikulua, goi-mailakoetan). VI. eranskineko 1. zerbakian dago jasota zer kompetentzia-atal egiaztatzeak ematen duen aukera dagozkion moduluak baliozkotzeko; 2. zerbakian, aldiz, dagozkion moduluak eta kompetentzia-atalak jasotzen dira.*

Matrikulatutako ikasleak baliozkotzeak eska ditzake, honako hauek egiaztatzen baditu:

- LOEren beste ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.
- LOGSEren ziklo bat osorik edo partzialki gainditu izana.
- Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kompetentzia-atalak, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan araututako prozeduraren bidez (KEE) edo profesionaltasun-ziurtagirien bidez lortuak.
- LH1 edo LH2 tituluak, abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen babesean ezarriak.
- Unibertsitate-ikasketa ofizialak.

**A, B eta C atalen** baliozkotzeak EBAZTEKO **eskumena** ikaslea matrikulatuta dagoen hezkuntza-zentroko **zuzendariarena** da. **D eta E** atalei dagozkienak, berriz, **Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak** ebatziko ditu.

#### **OHAR GARRANTZITSUA:**

2014ko azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduak, zeina urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez aldatu baitzen, zera dio:

*Lehenengo xedapen gehigarria. Titulazio baliokideak.*

*Ezin izango dira erabili lanbide-moduluak baliozkotzeko, ez Lanbide Heziketako tituluekin baliokidetasun espezifikoa edo orokorra (ondorio akademikoetarako edo profesionaletarako) onartua duten ikasketak, ez Espainiako hezkuntza-sistemaren tituluekin homologatuta dauden atzerriko tituluak.*

Alegia, LOGSEren ikasketak osatu ez dituztenek bakarrik egin ahal izango dute LOGSE->LOE baliozkotzea, INOIZ EZ LOGSEren titulua dutenek, LOEren errege-dekretuan eta EHAAn argitaratutako dekretu korrelatiboan espresuki baliokidetzat jotako titulua bada (ikus EHAako dekretu guztien lehenengo xedapen gehigarria: titulazio baliokideak eta lanbide-gaikuntzarekin duten lotura).

#### **5.1.3 – LOEren zikloetako EAEko modulu propioak baliozkotzea.**

**Ingeles teknikoko** modulua sartu da EAEko curriculumetan, E100 edo E200 kodeekin (erdi-mailakoentzako eta goi-mailakoentzako, hurrenez hurren). Bereizi egin behar dira modulu hori eta titulu jakin batzuen gaineko errege-dekretuetan oinarritzotzat jotakoak, kode desberdinak dituztenak.

- Maila bereko Ingeles teknikoko moduluetan, kode berdina badute, kalifikazioa **eraman** ahal izango da (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.10 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak emandako idazkuntzan).
- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.7 artikuluan adierazitakoaren arabera (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak artikulua horri emandako idazkuntzan):
  - Erdi-mailako modulua (E100) baliozkotzeko irizpidea onartu da, goi-mailako modulua gaindituz (E200).

- EAEko Ingeles teknikoko modulu propioa baliozkotzea ere onartuko zaie ingelesean **B1** maila edo goragoko bat egiaztatzen duten ikasleei, **erdi-mailako** heziketa-zikloetan (**E100**), edo **B2** maila edo goragoko bat, **goi-mailako** heziketa-zikloetan (**E200**).
- Horrez gainera, erdi-mailako eta goi-mailako zikloetako Ingeles teknikoko lanbide-modulua baliozkotzea onartuko zaie Ingeles Filologiako gradu-titulua, Itzulpengintza eta Interpretazioko gradu-titulua (ingelesean) edo haien baliokidea egiaztatzen duten pertsonari.
- **Ingeles teknikoko** modulua baliozkotzeko, ezinbestekoa izango da tituluaren kompetentzia-atal guztien egiaztapena aurkeztea (Lan-esperientziaren bidez hartutako kompetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabeko prozeduraren bidez lortutako kompetentzia-atalak betiere) eta EAEko titulu bakoitza arautzeko dekretuen bidez ezarritako baldintzak betetzea (9. artikulua, erdi-mailako zikloetarako eta 10. artikulua goi-mailako zikloetarako).

#### 5.1.4-Oinarrizko Lanbide Heziketako moduluak baliozkotzea.

Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuak eta ekainaren 9ko 86/2015 Dekretu korrelatiboak (Oinarrizko Lanbide Heziketaren antolamendua eta ezarpena arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoan) zehazten dute Oinarrizko Lanbide Heziketako irakaskuntzen baliozkotzea.

Kontuan hartu behar da, orobat, azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.1.g artikuluan ezarritakoa (urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan).

*Kode ezberdinak baina izendapen berdinak dituzten Oinarrizko Lanbide Heziketako lanbide-moduluak baliozkotu egingo dira, haiei dagokien heziketa-zikloa edozein dela ere.*

## 5.2. BALIOZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK ESKATZEA: OINARRIZKO ESKEMA

### 5.2.1- Alderdi orokorrak.

Baliozkotzea edo salbuespena eskatzen bada, nahitaez egon behar da matrikulatuta haren helburuko heziketa-zikloan.

Eskaintza partzialean edo urrutiko eskaintzan matrikulatuta dauden ikasleek aukera baldin badute zentroak eskaintzen ez dituen lanbide-moduluetan baliozkotzeak egiteko, halako moduluetan matrikulatu ahal izango dira, baliozkotzearen ondorio hutsetarako (2012ko azaroaren 26ko Ebazpena).

Ezin da baliozkotzerik eskatu Lanbide Heziketako tituluak eskuratzeko probetarako; alegia, proba libretearako (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.9 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan).

Baliozkotzea edo salbuespena ikaslearen espediente akademikoan, ebaluazio-aktetan eta ziurtagiri akademikoan, hurrenez hurren, honela jasota geratuko da:

- a) **Baliozkotua**, baliozkotu diren lanbide-moduluen kasuan. Baliozkotutako lanbide-moduluei **5eko kalifikazioa** ezarriko zaie, batez besteko nota kalkulatzearen ondorioetarako (otsailaren 2ko 14/2006 Dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.9 artikulua, eta azaroaren 7ko ECD 2159/2014 Aginduaren 3.7 artikulua).

- b) **Salbuetsia**, salbuetsi diren lanbide-moduluen kasuan: Lantokiko prestakuntza; EAEko **Ingeles teknikoko** modulu propioa.
- c) Agiri honetako 4. puntuan adierazitakoaren arabera, LOEren zikloetako moduluen kasuan, kode berdina badute, lortutako kalifikazioa **ofizioz eramango da** modulua jasotzen duen edozein ziklotara.

### 5.2.2- Baliozkotzeak ebazteko eskumena.

Zentroko zuzendariak aldeko ebazpenak emango ditu xedapen hauetan jasota dauden lanbide-moduluen baliozkotzeei buruz:

- 2001eko abenduaren 20ko Agindua (uztailaren 9ko ECD/1842/2002 Aginduaren bidez zuzendua) eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Agindua, biak ala biak urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez aldatuak.
- Tituluei buruzko errege-dekretuen V. A) eranskinak (edo EAEko curriculumari buruzko dekretuaren VI. eranskina), Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalen egiaztagiri ofiziala edo profesionaltasun-ziurtagiriak ematen badira, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren babesean.
- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua; hain zuzen ere, 27. artikulua eta 27 bis artikulua.

Ostera, kontrako ebazpena emango du, **bere eskumenekoak izanik** adierazi berri den **araudian agertzen ez diren eskaerei** buruz.

Ebazpena, behar bezala arrazoitua, interesdunari jakinaraziko zaio.

Eskatutako baliozkotzea araudian jasota ez dagoen bat bada eta beste ikasketa batzuk baditu oinarrian (ikus 5.1.1.C, 5.1.2.D eta 5.1.2.E atalak), baliozkotze-eskaera ez da ebatziko hezkuntza-zentroan. Horren berri emango zaio interesdunari, eskaerarekin aurrera jarraitu edo atzera egin nahi duen erabaki dezan. Atzera egitea idatziz jaso beharko da, eta izenpetuta aurkeztu. Eskaerarekin jarraitzea erabakiz gero, hezkuntza-administrazioaren organo eskudunek eskabidea izapidetzen jarraituko dute, espedienteak dokumentazio egokia duen ikuskatzeko.

Baliozkotzeari begira, ez dira inoiz aintzat hartuko lehendik baliozkotuta dauden lanbide-moduluak edo ikasketak; beraz, beste eskaera bat egin beharko da, nahi izanez gero, eta benetan egin eta gainditu diren ikasketen dokumentazio osoa aurkeztu (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.11 artikulua eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.6 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).

**ESKAERA HAUEK EZ DIRA ONARTUKO, ETA, HORTAZ, EZ DIRA HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIORA BIDALIKO:**

- A. Honako hauek jasotzen dituzten baliozkotze-eskaerak:
- Berezko unibertsitate-tituluak, ez-ofizialak.
  - Lan-esperientzia.
  - Prestakuntza ez-formala edo informala (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.8 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan).
  - LH1 edo LH2 tituluak, ikaslea matrikulatuta dagoen LOGSEren zikloaren baliokidetzat jo direnak.
  - LH1,LH2 edo LOGSE tituluak, ikaslea matrikulatuta dagoen LOEren zikloaren baliokidetzat jo direnak.
  - Atzerriko tituluak, Espainiako Hezkuntza Sistemaren tituluekin homologatuak izan direnak.
- B. Goi-mailako tituluaren Proiektuko modulua baliozkotzeko eskaerak<sup>(1)</sup>.
- C. Unibertsitate-ikasketa ofizialak eta LHko teknikari-tituluak baliozkotzeko eskaerak<sup>(2)</sup>.
- D. Gutxieneko irakaskuntzetarako ezarrita dauden ECTS kredituen % 60 baino gehiago egiten duen modulu kopurua eskatzeko direnak (soilik  $\leq$  % 60), unibertsitate-ikasketak egiaztatuta.

<sup>(1)</sup> Goi-mailako tituluaren Proiektuko modulua ez da baliozkotuko, ezta **salbuetsiko** ere (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.1.f artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).

<sup>(2)</sup> Unibertsitate-ikasketen eta LHkoen arteko baliozkotzeak egiteko, nahitaezkoa da LHko ikasketak goi-mailako hezkuntzaren esparrukoak izatea.

Goi-mailako zikloetan eskatzen eta baliozkotzen den modulu kopurua ez da izango gutxieneko irakaskuntzetarako ezarrita dauden ECTS kredituen % 60 baino handiagoa; gainera, nahitaez egiaztatu behar dira unibertsitate-ikasketa batzuk, zeinek ezagutza-arloarekin zerikusia izan behar baitute eta, gainera, konpetentziak, ezagutzak eta ikaskuntzaren emaitzak antzekoak izan behar baitira (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 4.2.a artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).

### **5.2.3- Izapidetze-prozedura.**

Ikasleak, nahi badu, baliozkotze- edo salbuespen-eskaera aurkeztuko dio matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari, ikasturtea hasi baino lehen edo, salbuespenez, eta epe hori amaitu ondoren matrikulatuz gero, matrikulatu den egunetik aurrerako 7 egun balioduneko epearen barruan. Izapide hori adierazten diren baldintzetan beteko da (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27 bis artikulua; dekretu hori otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatu zen).

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatzi behar dituen baliozkotze-eskaerak matrikulazio-datatik urriaren 15era arteko epean aurkeztuko dira ikastetxean. Aplikazioan sartzen diren eskaerak guztiek sarrera-erregistroa izan behar dute.

Lantokiko prestakuntzatik salbuesteko eskaera behar besteko denbora-tartez egin beharko da, modulura sartzeko amaierako ebaluazioaren data iritsi aurretik ebatzi ahal izateko. Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da lan-esperientzia.

Lehen aipatutako oinarritzko betekizun orokorrak betetzeaz gain, dagokion organismoari honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio, izapidetu ditzan:

- Behar bezala betetako inprimakia, azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren IV. eranskinean jasotakoaren **moduko** ereduari jarraikiz (ikus dokumentu honen 35. orrialdea). Eskieran, baliozkotu nahi diren moduluen kodea eta izendapen zehatza espresuki adierazi beharko dira.
- Heziketa-ziklo bat egin izanaren ziurtagiri akademiko ofizial osoaren edo partzialaren jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua. EAEn 2015/2016 ikasturtetik aurrera egindako edo amaitutako LHko ikasketak ziurtagiri digitalez **baino** ez dira akreditatuko.
- Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez lortutako profesionaltasun-ziurtagiriaren edo konpetentzia-atalen egiaztapen partzialen jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.
- Egokia suerta daitekeen gainerako dokumentazio baliozkoa.

### **Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministeriora bidali behar diren eskaerak izapidetzea.**

Eskaerak EGOITZA ELEKTRONIKOAREN bidez baino ez dira bidaliko, honako pauso hauei jarraituta:

1. Eskatzaileak aurkeztutako **nahitaezko dokumentazioa aztertuko du** zentroak, araudian ezarritakoa betetzen dela egiaztatuz, eta, hala badagokio, 10 eguneko epea emango du egin beharreko zuzenketak aurkezteko. Zuzendariak horren berri emango dio eskaera egin duen ikasleari, prozeduran atzera egiteko eskubidea egikaritzeko aukera izan dezan. Dena **zuzen** badago, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren EGOITZA elektronikoa **erregistratuko du** eskaera.
2. **Zentroak zuzenean erregistratuko du baliozkotze-eskaera EGOITZA elektronikoa** Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan, dagozkion datuak beteta eta erantsitako dokumentazioak markatuta.
  - Ikasleen baliozkotze-eskaerak erregistratzeari ekiteko, **hezkuntza-zentroak lehenengo erregistratu egin beharko du**, zentroaren kodea eta pasahitz bat sartuta. Prozeduraren nondik norakoak zehatzago ezagutzeko, kontsulta ezazue Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak prestatu duen baliozkotzei buruzko gidaliburua <http://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:87e1dab9-66fe-4240-8a0e-ee23e7e62f75/guia-centros-2018.pdf> han baitago xehe-xehe jasota prozedura.
  - **Ikasleak ere alta hartu behar du EGOITZA elektronikoa**. Horretarako, <https://sede.educacion.gob.es/sede/login/plogin.jjsp> estekara jo, datuak bete eta IFZ eta pasahitza sartuko ditu; modu horretan, ebazpenaren eta eskaeraren egoeraren berri jaso ahal izango du.
3. Ondoren, **dokumentazio digitalizatua erantsiko du zentroak**, pdf formatuan, eskaerarekin batera, eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministeriora igorriko du EGOITZA elektronikoa bidez. Erantsitako dokumentazioa, zentroak aztertu eta digitalizatu ostean, telematikoki konpultsatuko da, baliozkotze-prozedura honetarako. Ez da inolaz ere eskaerarik izapidetuko, baldin eta eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada.
4. Erantsitako dokumentazioaren pdf artxiboa zentroak berak digitalizatu dezake, edo eskatzaileak berak entregatu dezake zuzenean idazkaritzan, paperezko kopiarekin batera, zentroko langileek dokumentazio hori egiaztatu ahal izan dezaten.
5. Eskabideak Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministeriora bidaltzeko epea urriaren 30ean bukatuko da.

Une horretatik bertatik jasotzen dira Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Orientazioko eta Lanbide Heziketako Zuzendariordetza Nagusian eskaera eta dokumentazioa, bertan aztertu eta ebatz daitezten.

#### 5.2.4- Ebazpen-prozedura.

**Ikaslea matrikulatuta dagoen** eta bere espediente akademikoa dagoen **zentroko zuzendariari** egokituko zaio indarreko araudiak jasotako baliozkotzeen eta salbuespenen gaineko aitortzari buruzko ebazpena emateko ardura. Ebazpena emateko hilabeteko epea izango du, **eskaera egiten denetik hasita**. Gehieneko epea igaro eta interesdunari ez bazaio ebazpen espresu legitimorik jakinarazi, eskaera administrazio-isiltasunagatik ezetsizat hartu dela ulertu behar da.

##### **Ebazpena Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskumenekoa bada:**

Uneoro ikusi ahal izango du eskatzaileak bere izapideen egoera, eta ez du premiarik izango ondoren horren gaineko informazioa jasotzeko. Eskaera ebazten ez den bitartean, eskoletara joan beharko du eta egin beharreko ebaluazioak egin.

Eskaera **ebazten denean, mezu elektronikoa bat jasoko du interesdunak**, ebazpena EGOITZA elektronikoa eskura duela jakin eta bertatik deskargatu dezan. **Zentroak ere mezu elektronikoa bat jasoko du**, ebazpenaren berri emateko, taldeak errazago antolatu ahal izateko eta abar.

**Ezinbestekoa da ikasleak** baliozkotzearen gaineko **ebazpena deskargatzea**, hura aplikatu ahal izateko. Ondoren, matrikulatuta dagoen hezkuntza-zentroan entregatu beharko du, bertan ebatzitakoa aplikatu ahal izateko. Ordutik aurrera, ez du lanbide-modulu horretako eskoletara joan beharrik izango.

#### 5.2.5- Errekurtsoak.

1. Aurreko atalean aipatutako ebazpenaren aurrean, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango du interesdunak hilabeteko epean, jakinarazpena jaso den hurrengo egunetik hasita, **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen** urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Errekurtso hori honako hauen aurrean jarriko du:

- a) Zentroko zuzendariak eman badu ebazpena, errekurtsoa Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren aurrean jarriko da.
- b) Orientazioko eta Lanbide Heziketako Zuzendariorde Nagusiak eman badu, berriz, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren aurrean jarriko da. Horretarako, ezinbestekoa da eskatzaileak aurrez ebazpena deskargatzea EGOITZA elektronikoa.

2. Gora jotzeko errekurtsoaren ebazpenak, organo eskudunak emandakoak, administrazio-bidea amaituko du.

Sei hilabeteko gehieneko epea ebazpen espresurik gabe igarotzeak zilegitasuna ematen die eskaera egin duten interesdunei administrazio-isiltasunez ezetsizat jotzeko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 24. artikulua).

#### 5.2.6-Baliozkotzeetan edo salbuespenetan atzera egitea edo horiei uko egitea.

Eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da, baldin eta baliozkotze-eskaera ebatzi aurretik uko egiten badiu baliozkotzeari. **Ebazpena Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eskumenekoa bada**, zentroko zuzendaritzak **atzera egitearen** berri emango dio Ministerioari, bertan behera gera daitezten izapideak.

Baliozkotzea edo salbuespena ebatzi ondoren, interesdunak horri uko egin ahal izango dio, osorik edo zati batean, amaierako ebaluazioa egin aurretik.

**Atzera edo uko egiteko** prozedura ikaslearen eskariz abiaraziko da. Uko eginez gero, eskaera amaierako ebaluazioa egin aurretik aurkeztu beharko da. **Interesdunak horretarako idazkia aurkeztuko du.**

Zuzendariak aldeko ebazpena emango du atzera edo uko egiteko eskaeraren gainean, pertsonen eskubidea denez. Idazki hori ikaslearen espedientean sartuko da.

Kasu horietan, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan ezarritakoa aplikatu da.

### **5.3. BALIOZKOTZEEN ETA SALBUESPENEN GAINEKO IRUZKINAK ETA ÑABARDURAK.**

Erdi-mailako heziketa-zikloetako lanbide-moduluak **Batxilergoko jakintzagaiekin** baliozkotu ahal izango dira, ziklo horri buruzko arauak zehazten dituen baldintzetan.

- **Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua ezingo da inolaz ere baliozkotu.**
- **LPO (Laneko prestakuntza eta orientabidea ) eta EES (Enpresa eta ekimen sortzailea):**
  - Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (**LOE**) babesean ezarritako lanbide-heziketako edozein titulutan jasotako **Laneko prestakuntza eta orientabideko** lanbide-modulua baliozkotu ahal izango da, baldin eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (**LOGSE**) babesean ezarritako Laneko prestakuntza eta orientabideko lanbide-modulua gaindituta daukala eta prebentzio-jardueraren **oinarrizko mailako** funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntza-maila duela egiaztatzen badira. Egiaztagiri horiek indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera eman beharko dira (Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariaren ziurtagiria, oinarrizko mailakoa eta baimendutako erakunde batek emana, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera). Oinarrizko prestakuntza hori 30-50 ordukoa izango da, enpresa-jarduera zein den (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.3 artikulua eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren hirugarren xedapen gehigarria).
  - LOGSEren Arrisku Profesionalen Prebentzioko goi-mailako teknikariaren titulua aurkezten dutenei ere LOEren heziketa-zikloetako Laneko prestakuntza eta orientabideko modulua baliozkotuko zaie, titulu horrek jasota dituelako laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailaren ziurtagiriko edukiak. (Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren bigarren xedapen gehigarria, 2014/11/20ko BOE).
  - **LOGSEren tituluen barne dagoen Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea izeneko** lanbide-modulua egiaztatuz gero, LOEren tituluen barnean dagoen **Enpresa eta ekimen sortzaileko** modulua baliozkotuko da, edozein dela ere titulua eta horren **maila. Inoiz ez da alderantziz egingo.** (Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren III. eranskina, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez aldatua).
- **Laneko prestakuntza eta orientabideko eta Enpresa eta ekimen sortzaileko moduluak** LOEren heziketa-zikloen artean **baliozkotuko dira** beti, edozein dela ere haien maila (otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.4 artikulua, eta azaroaren 7ko ECD/2150/2014 Aginduaren 3.1.d artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).
- **LOEren heziketa-zikloetako Laneko prestakuntza eta orientabidea** baliozkotu dezakete 5/2002 Legetik eratorritako eta 1224/2009 Errege Dekretuak araututako Konpetentziak Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Sistematik datozen ikasleek, hala baitote EAEko curriculum-dekretuaren 4. apartatuko 9. artikulua (erdi-mailako kasuan) eta 10. artikulua (goi-mailako kasuan):



- Tituluaren profilari loturiko konpetentzia-atal **GUZTIAK** egiaztatzea.
- Gutxienez, urtebeteko lan-esperientzia.
- Oinarrizko prestakuntzaren ziurtagiria laneko arriskuen prebentzioan.

## 6. KONPETENTZIA-ATALEN ETA LANBIDE-MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA

Lanbide Heziketaren eta Kualifikazioen ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak Kualifikazioen Sistema Nazionala egituratu zuen, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren bidez, lanbide-heziketako sistema integratua eratzeko ardatz bihurtu dena, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketak (Lanbide Heziketako tituluak) eta enplegurako lanbide-heziketak (profesionaltasun-ziurtagiriak) osatua. Gainera, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan sartutako konpetentziak eta kualifikazioak lan-esperientziaren bidez egiaztatu daitezke, dagokion ebaluazio- eta egiaztapen-sistemaren bitartez.

Lanbide-heziketako tituluak ezartzen dituzten errege-dekretuen 15. eta 16. artikuluek —hurrenez hurren, erdi-mailako eta goi-mailako zikloei buruzkoak berauek— honako hau xedatzen dute: «Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeke eta baliozkotzeke eta horietatik salbuesteko». Komeni da nabarmentzea aipatutako artikuluen 1. apartatuak konpetentzia-atalen eta tituluko irakaskuntzen barne dauden lanbide-moduluaren arteko egokitasuna ezartzen duela, horiek baliozkotzeke edo horietatik salbuesteko. Egokitasuna zehazten dute, hain zuzen, errege-dekretuen V. A) eranskinak edo, bestela, dagokion errege-dekretuaren IV. A) eranskinak.

Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 7. artikulua arautzen du konpetentzia-atal horien baliozkotzea.

Aurreko hori baliozkoa da, **esklusiboki**, dagokion zikloan matrikulatuta egonik, **hezkuntza-sistemaz kanpotik datozen eta tituluan sartutako konpetentzia-atalen bat egiaztatzen duten** pertsonen kasuan, baldin eta honako bi kasu hauetako bat betetzen bada:

- Konpetentzia-atalen bat egiaztatzea konpetentzia profesionala egiaztatzekeko prozeduraren bitartez. Prozedura hori ezarri zuen Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeke buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak.
- Profesionaltasun-ziurtagiriren baten ikasketak edo horien zati bat egin izana, Profesionaltasun Ziurtagiriak Arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 ERREGE DEKRETUAREN arabera, eta ziurtagirian sartutako konpetentzia-atal guztiak edo horietako bat egiaztatuta edukitzea.

### GARRANTZITSUA:

Lanbide-heziketako tituluaren gutxieneko irakaskuntzei buruzko errege-dekretuetako V. B) eranskinetan edo, bestela, V. A) eranskinetan ezarritako egokitasunek ez dute **inola ere** balioko egiaztatutako konpetentzia-atalen bitartez (gainditutako moduluaren ondorioz) ziklo bereko edo beste ziklo bateko beste lanbide-modulu batzuk zuzenean baliozkotzeke (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 7. artikulua). Kontu handia izan behar da horrekin, ikasle batzuek estrategia hori baliatu nahi izaten dutelako baliozkotzeak pilatzeko lasterbide gisa.

Titulu bakoitza zehazteke errege-dekretuen eranskinetan hainbat konpetentzia-atalen eta modulu baten arteko egokitasuna ezartzen bada, **ezingo da gauzatu baliozkotze partziala**.

Horrenbestez, eskatzaileak egiaztatu ditzakeen **konpetentzia-atalak** kontuan hartuz, hezkuntza-zentroko zuzendaritzak eskatzailea egiten ari den ikasketen titulua zehazteke errege-dekretuaren V. A) eranskinetan (EAEko curriculum-dekretuaren kasuan, VI. eranskina da) araututako lanbide-moduluak baliozkotzeko ditu.

## **Beraz, heziketa-zikloan matrikulatuta egotea eta betekizun akademikoak betetzea ezinbestekoa da, matrikula egingo bada.**

Aipatutako errege-dekretu edo dekretu horien guztien eranskinen ohar osagarri bat gehitu ohi zaie, kasuan kasuko tituluaren euskarri edo oinarri diren beste lanbide-modulu batzuk baliozkotzeko aukera emateko.

LOEren babesean osatutako tituluen eranskin honetan ezarritako egokitasuna **inola ere** ez da erabiliko kontrakoa egiteko; alegia, kompetentzia-atalak hezkuntza-zentroan egiaztatzeko. Kompetentzia-atalak egiaztatzeko ardura laneko agintaritzaren esku egongo da kasu guztietan (ikus ondorengo atala).

## **7. LANBIDE-MODULUEN ETA KOMPETENTZIA-ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA**

Gogora ekarri behar da maiatzaren 3ko 2/2006 Legetik eratorritako tituluak eta horien gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu gehienen V. B) eranskinak (edo, bestela, IV. B eranskinak) arautzen dituela egiaztatu daitezkeen **kompetentzia-atalak**, behin titulu jakin batean ezarritako lanbide-moduluak gaindituz gero.

**Heziketa-zikloa amaitu gabe**, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketa aldi baterako utzi, eta ekoizpen-sisteman sartu edo enplegurako lanbide-heziketaren azpisisteman ikasi nahi duen ikasleari aplikatuko zaio nagusiki eranskin hori.

Eranskin hori aplikatu ahal izateko baldintzak honako hauek dira, eta batera bete beharko dira:

- Gainditutako lanbide-moduluak LOEren tituluaren eranskinean zehaztutako taularen ezkerreko zutabearen agertuko dira.
- Egiaztatu daitekeen eta LOEren tituluaren eranskinetako taularen eskuineko zutabearen ageri den kompetentzia-atalari loturiko lanbide-modulu guztiak gainditu izana.

Eranskin horretan ezarritako egokitasuna ez da inola ere erabiliko kontrako norabidean, **ezta modu horretan egiaztatutako kompetentzia-atalen bidez beste ziklo batzuetako lanbide-moduluak baliozkotzeko ere**.

Zehaztapen horiek direla medio, bi elkarrekikotasun-taula egongo dira —alegia, V.A) eta V.B) eranskinak— ; izan ere, hala ez balitz, zutabe bakarra legoke, edo, bestela, bi zutabe simetriko.

Profesionaltasun Ziurtagiriak Arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan (abenduarien 10eko 1675/2010 Errege Dekretuaren bidez emandako idazkuntzan) eta hori aplikatzean emandako profesionaltasun-ziurtagiriak ezartzen dituzten errege-dekretuetan ezarritakoaren arabera, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko, profesionaltasun-ziurtagiriari dagozkion modulu guztiak gainditu beharko dira edo, bestela, lanekoak ez diren praktiken moduluari gehitu beharko zaizkio profesionaltasun-ziurtagiriak jasotako kompetentzia-atalei loturiko heziketa-moduluen egiaztapen partzialak.

Kontuan hartuta ikasle multzo bat eskaintza partzialean matrikulatzen dela eta ikasle horien helburua kualifikazioa lortzea edo kompetentzia-egiaztapenen bidez baliozkotutako moduluekin titulua lortzea dela edo lanbide-heziketako ikasketak amaitu gabe uzten dituela, gaindituta dituzten LOEren irakaskuntza partzialen barneko kompetentzia-atalak kapitalizatzeke orientabideak eman ahal izango zaizkie, profesionaltasun-ziurtagiriak osa ditzaten. EAEn, kompetentzia-atalak edo profesionaltasun-ziurtagiriak egiaztatzeke eskumena duen erakundea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da.

## 8. ZIKLOEN ARTEKO BALIOZKOTZE “GURUTZATUAK”.

Titulu bakoitzaren errege-dekretuaren IV. eranskinean eta dagokion curriculum-dekretuaren V. eranskinean adierazten dira urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren (LOGSE) babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren (LOE) babesean ezarritako moduluen arteko baliozkotzeak. Eranskin horretan adierazten da LOEren ziklo jakin bati LOGSEren zer ziklo dagokion, halakorik badago. Izan ere, gerta daiteke LOEren ziklo batzuek lanbide-modulu berberak izatea (kode bera). Beste ziklo batzuetako modulu horiek ere LOGSEren zikloekin baliozkotuko dira, ziklo horien eranskinetan espresuki identifikatuta ez dauden arren.

(1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa).

*Bosgarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako titulu-tako lanbide-moduluen eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritako titulu-tako lanbide-moduluen arteko baliozkotzea.*

- 1. Aipatutako 1/1990 Legeko titulu-tako lanbide-moduluek, Lantokiko prestakuntzako modulua salbu, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean prestatutako titulu-tako eranskinean baliozkotuzat jasotzen badira, eskubidea emango dute eranskinean agertzen den lanbide-modulua baliozkotzeko, edozein dela ere hari dagokion lanbide-heziketa-titulua.*
- 2. Baliozkotze hori ikaslearen espedientea jasota dagoen hezkuntza-zentroko zuzendaritzak aitortuko du, eta eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriekin batera aurkeztuko da, errege-dekretu honen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Agindua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan.

*Bosgarren xedapen gehigarria. Lanbide-heziketa-tako beste titulu batzuetan sartuta dauden lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak.*

*Agindu honen eranskinetan ezartzen diren baliozkotzeak beste edozein heziketa-ziklotako lanbide-moduluei aplikatuko zaizkie, edozein dela ere hari dagokion lanbide-titulua.*

Alegia, ikasleei errege-dekretu bakoitzaren IV. eranskina aplikatzeko (dekretuetan bosgarrena da), ezinbestekoa izango da ikasleek **zentroak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzea** LOGSEren babesean argitaratutako heziketa-ziklo-tako batean matrikulatuta egonik honako baldintza hauek **guztiak** betetzen dituztela:

1. Matrikulatuta egondako LOGSEren tituluko lanbide-moduluren bat gainditu izana.
2. LOGSEren heziketa-zikloan gainditutako lanbide-moduluak, ezinbestekoak direnak LOEren tituluko moduluekin baliozkotzeko, edozein dela ere zegokien LOGSEren titulua, kasuko LOEren tituluaren IV. eranskineko taulako ezkerreko zutabean agertu beharko dira. Baliozkotzea zehaztutako norabidean bakarrik egin daiteke (taulan, ezkerretik eskuinera), inola ere ez kontrakoan.

**OHARRA: Ebatzitako baliozkotzeen zuzentasuna egiaztatu daiteke esteka honetan (Ingeles teknikoarena salbu). Aplikazioa eta araua ez badatoz bat, azken horrek izango du lehentasuna.**

<https://www.todofp.es/pruebas-convalidaciones/convalidaciones-equivalencias-homologaciones/convalidaciones/solicitud/que-modulos-pueden-solicitar-convalidacion/herramienta-convalidaciones.html>

(Todo FP webguneko orri nagusian, ireki menu zabalgarri hauek: *Pruebas y convalidaciones – Convalidaciones, equivalencias, homologaciones y acreditación – Convalidaciones*). Baliozkotzeen orrian, BALIOZKOTZEETARAKO TRESNAREN esteka bat dago.

**Webgune horrek zuzeneko baliozkotzea aitortzen du LOGSEren Laneko prestakuntza eta orientabidearen eta LOEren Laneko prestakuntza eta orientabidearen artean. Halaber, kontuan hartu behar da laneko arriskuen prebentzioko prestakuntza izatea ere egiaztatu behar dela.**

Jarraian, baliozkotze-taulak ageri dira, orain artekoa laburbilduta.

**Lanbide-moduluetan egin daitezkeen baliozkotzei buruzko xehetasunak, aipatutako aginduaren eranskinetan eskuragarri egoteaz gain, EEI-IVAC erakundearen webgunean ere eskuragarri egongo dira.**

## LABURPEN-TAULAK

### BALIOZKOTZEAK - SALBUESPENAK

Baliozkotzeen edo salbuespenen onuradun izan nahi duenak nahitaez egin behar du **MATRIKULA** heziketa-zikloren batean.

Interesdunak ikasturtearen hasieran egin beharko du **ESKAERA**, eta prestakuntza-zentroko zuzendariari helaraziko dio (ikusitako prozedura-alderdien atala testu honetan).

Kontuan hartu beharreko irizpide orokorrak eta nahitaezkoak:

1. Lehendik baliozkotutako modulu bat EZ da baliozkotze berriak egiteko kausa.
2. Proiektuko moduluak ez da baliozkotuko, ezta salbuetsiko ere.
3. Lantokiko prestakuntzako modulutik salbuesteko aukera dago; ordea, modulu hori ezingo da INOIZ baliozkotu.
4. LHko tituluak eskuratzeko probetan ezingo da baliozkotzerik eskatu.
5. Lanbide Heziketako tituluarekin baliokidetasun espezifiko edo orokorra (ondorio akademikoetarako edo profesioalderako) onartua duten ikasketak ezingo dira erabili lanbide-moduluak baliozkotzeko.

Adibidez: Interesdunak LOGSEren titulua badu Mekanizazioan eta LOEren zikloko Mekanizazioan egiten badu matrikula, EZ zaizkio baliozkotzeak aplikatuko.

6. Moduluak konpetentzia-atalekin bat datoze horiek baliozkotzea posible izango da (tituluak argitaratzeko errege-dekretuen V.a eranskina) bakar-bakarrik baldin eta profesionaltasun-ziurtagiria edo egiaztapen partzial metagarria gaituzte izanagatik edo konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatze prozeduraren emaitzengatik lortu bada egiaztapena.
7. Aldiz, tituluak ezartzeko errege-dekretuetan argitaratutako V.b) eranskinean edo, bestela, V.a) eranskinean zehaztutako egokitasuna ez da eraginkorra izango modu horretan egiaztatutako konpetentzia-atalen bidez zuzenean baliozkotzeko ziklo bereko edo beste batzuetako moduluak.

Adibidez: Ebaluatzeko eta egiaztatze prozeduraren bitartez konpetentzia-atalen bat egiaztatuta daukanari eranskineko taularen arabera modulu-baliozkotzea aplikatuko zaio, baina ondoren EZ zaio beste taula aplikatuko. Beste modu batera esanda: egiaztapenetan, EZ dira eranskineko bi taulak aldi berean aplikatuko, baizik eta dagokiona bakarrik.

## ERANSKINAK: MODULU MOTEN ARABERAKO TAULAK

Baliozkotzeak edo salbuespenak eragin ditzaketen arrazoen zerrenda eta deskribapena.

	Interesdunak...	LOEren ziklo bateko moduluak <b>BALIOZKOTZEKO</b> trataera orokorra
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<p><u>Araudiak</u> baliozkotzeak –osoak edo partzialak– <b>BAIESTEN</b> ditu, interesdunak LOEren lanbide-moduluak gaindituta badauzka (ikasketa-egiaztagiri ofizial bat aurkeztuta) eta LOEren beste ziklo batean matrikulatzen bada.</p> <p><u>Erne:</u> kode eta izendapen berdineko modulua bada, <b>EZ</b> da baliozkotutzat joko, eta interesduna matrikulatu den zikloan dagokion modulura eramango da orduko hartan lortutako kalifikazioa.</p>
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<p><u>Araudiak</u> baliozkotzeak –osoak edo partzialak– <b>BAIESTEN</b> ditu, interesdunak LOGSEren lanbide-moduluak gaindituta badauzka (ikasketa-egiaztagiri ofizial bat aurkeztuta) eta LOEren beste ziklo batean matrikulatzen bada.</p> <p><u>Erne:</u> Gogoan hartu beharrekoa da interesdunak <b>osatu</b> eta aurkeztu duen LOGSEren heziketa-zikloa bat badator matrikula egin nahi duen LOEren zikloarekin, <b>EZ</b> dela baliozkotzerik emango.</p>
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko</b> ikasketak egin ditu.	<p>Oro har, teknikari laguntzailearen (LH-I) edo teknikari espezialistaren (LH-II) tituluak dituztenei <b>EZ</b> zaie <u>zuzeneko</u> baliozkotzerik emango.</p> <p>Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p> <p>Edonola ere, BALIOKIDETASUNA egon daiteke titulu horien eta LOEren tituluren baten artean (titulu bakoitzaren errege-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria).</p>
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	<p>Profesionaltasun-ziurtagiriak ofizialki egiaztatzen dituzte horien osagai diren konpetentzia-atalak. Era horretan egiaztatutako konpetentzia-atalen kasuan, moduluak baliozkotzea <b>BAIETSIKO</b> da, LOEren tituluen errege-dekretuen 5.a) eranskinak aplikatuta. Trataera antzekoa dute egiaztapen partzial metagarriek.</p> <p><u>Erne:</u> profesionaltasun-ziurtagiriaren edo egiaztapen partzial metagarriaren ofizialtasuna egiaztatzea komeni da. 34/2008 Errege Dekretua baino lehenagoko profesionaltasun-ziurtagiriak <b>EZ</b> dute zuzeneko baliozkotzerik emango.</p>
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<p>Gaur egun, <b>EZ</b> da zuzeneko baliozkotzerik ez salbuespenik aurreikusten heziketa-zikloetako lanbide-moduluen arloan.</p> <p>Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p> <p><u>Erne:</u> salbuespen dira atzerriko hizkuntzen gaineko moduluak (Ingelesa), horietan modulu jakin batzuk unibertsitate-titulu jakin batzuen bidez baliozkotzea <b>BAIETS</b> daitekeelako (dagozkien tauletan ageri dira).</p>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<p><b>EZ</b> dago <u>zuzenean</u> baliozkotu daitekeenik.</p> <p>Atzerriko tituluen kasuan, berariazko homologazio-prozedura bat dago: Titulu osoa ematean edo baliozkotzean. Aurkeztutako atzerriko tituluen arabera, baliokidetzat jotako zikloko lanbide-moduluen baliozkotzeak ematean.</p> <p>Emaitzen agiri-euskarria <u>egiaztagiriak</u> izango dira. Egiaztagiri horiek <b>ERAGINA DUTE</b> LOEren heziketa-zikloetan sartu eta matrikulatzeko (eta moduluak baliozkotzea eskatzeko) garaian.</p>
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura</b>	<p>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduran aurkeztuta lortzen diren egiaztagiriak konpetentzia-atalak egiaztatzeko baliozkoak dira. Horrenbestez, era horretan egiaztatutako konpetentzia-atalen bidez LOEren heziketa-zikloetako moduluak baliozkotu <b>DAITEZKE</b>, D ataleko prozedura aplikatuta.</p>
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<p>Lantokiko prestakuntzako modulutik <b>SALBUESTEA</b> eragin dezake.</p> <p><b>Ebidentzia osagarriak</b> aurkeztuta, moduluren bat baliozkotzea eragin dezake (<b>ikus aurrerago horren xehetasunak</b>).</p>

		<p>Ikas-ekinezko erregimeneko modalitate dualean heziketa-zikloren bat hasita edo amaituta duen ikaslea Lantokiko prestakuntzako modulutik SALBUETSITA egongo da.</p>
--	--	---

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>LOEko LANBIDE-MODULU ESPEZIFIKOAK</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren II. eranskina aplikatuko da, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan (testu kontsolidatua). LOEren lanbide-modulu batzuk gainditu baditu edo, hala dagokionean, beste heziketa-ziklo bat osorik gaindituta badu, matrikulatutako LOEren zikloan ezaugarri horiek dituen zer modulu baliozkotuko diren kontu egin ahal izango da. <u>Erne:</u> kode eta izendapen berdineko modulua bada, EZ da baliozkotuzat joko, eta interesduna matrikulatu den zikloan dagokion modulura eramango da orduko hartan lortutako kalifikazioa.
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren III. eranskina aplikatuko da, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan (testu kontsolidatua). LOGSEren lanbide-modulu batzuk osorik edo partzialki gaindituta baditu, matrikulatutako LOEren zikloan ezaugarri horiek dituzten zer modulu baliozkotuko diren kontu egin ahal izango da. <u>Erne:</u> horiek hartu behar dira kontuan, baldin eta gaindituta duen LOGSEren modulua eta matrikula egin nahi duen LOErena ez badira baliokideak.
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko ikasketak</b> egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko mota horretako moduluetan. Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	Titulu bakoitzaren errege-dekretuan ezarritako V.a) eranskinean ikusten da ezaugarri horiek dituzten zer lanbide-modulu baliozkotuko zaizkion, kompetentzia-atal jakin batzuk egiaztatutakoan.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	Zuzenean EZ da baliozkotzerik emango, salbu eta ezarritako prozeduraren bidez eskatzen badira. <u>Erne:</u> hartu gogoan salbuespenak daudela atzerriko hizkuntzetako moduluetan.
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango mota horretako moduluetan. Gogoan izan halako kasuetarako badagoela prozedura zehatz bat, lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu beharrekoa, atzerriko titulu bat Lanbide Heziketako egungo tituluekin homologatzea (baliozkotzea) eskatzeko.
<b>G</b>	<b>Kompetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura</b>	D ataleko taula erabiliko da, ikasleak, kompetentzia-atal jakin batzuk egiaztatuz gero, matrikula egitean zer lanbide-modulu baliozkotu ditzakeen zehazteko.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko mota horretako moduluetan.



Interesdunak...	<p style="text-align: center;"><b>LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA</b>  <b>Erdi-mailakoa/Goi-mailakoa - LOE</b>  (2/2006 Legearen babesean)</p>
<b>A</b>	<p><b>LOEren zikloetako irakaskuntzak gainditu ditu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ LOEren ziklo batean, edozein direla ere arloa eta maila, Laneko prestakuntza eta orientabideko modulua gaindituta badu, <b>edozein arlo eta mailatarako baliozkotuko da.</b>  <i>(Otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.4 artikulua, eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.1.d artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduak emandako idazkuntzan).</i></li> </ul>
<b>B</b>	<p><b>LOGSEren zikloetako irakaskuntzak gainditu ditu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ LOGSEren ziklo batean, edozein direla ere arloa eta maila, Laneko prestakuntza eta orientabideko modulua gaindituta badu, eta laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailaren egiaztageria badu, edozein arlo eta mailatarako baliozkotuko da.  <i>(Otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutako otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.3 artikulua, eta azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren hirugarren xedapen gehigarria).</i></li> <li>▪ Goi-mailako ziklo osoa gaindituta badauka: Arrisku Profesionalen Prebentzioa (arloa: Produkzio Zerbitzuak eta Mantenimendua) edozein arlo eta mailatarako baliozkotuko da (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren bigarren xedapen gehigarria).</li> </ul>
<b>C</b>	<p><b>LOGSEren aurreko ikasketak egin ditu.</b></p> <p><b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
<b>D</b>	<p><b>Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen partzial metagarriak</b></p> <p><b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>
<b>E</b>	<p><b>Unibertsitate-ikasketak</b></p> <p>Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango. Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
<b>F</b>	<p><b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b></p> <p>Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango modulu honetan.</p>
<b>G</b>	<p><b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura</b></p> <p>Tituluan jasotzen diren konpetentzia-atal <b>GUZTIAK</b>, urtebeteko lan-esperientzia eta prebentzio-jardueren eginkizunak betetzeko oinarrizko mailaren prestakuntza jaso izana egiaztatuta izanez gero (uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera), <b>dagokion zikloko Laneko prestakuntza eta orientabideko modulua baliozkotuta</b> izango du.</p>
<b>H</b>	<p><b>Lan-esperientzia</b></p> <p><b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>

Interesdunak...	<p align="center"><b>ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA; ERDI-MAILA/GOI-MAILA - LOE</b> (2/2006 Legearen babesean)</p>	
<p align="center"><b>A</b></p>	<p align="center"><b>LOEren zikloetako irakaskuntzak gainditu ditu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ LOEren ziklo batean, edozein direla ere arloa eta maila, Enpresa eta ekimen sortzaileko modulua gaindituta badu, <b>edozein arlo eta mailatarako baliozkotuko da</b> (azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.1.d artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).</li> <li>▪ Administrazio Kudeaketako erdi-mailako ziklo osoa edo Administrazioiko eta Finantzetako goi-mailako ziklo osoa gaindituta badauka (arloan: Administrazioa eta Kudeaketa), <b>edozein arlo eta mailatarako baliozkotuko da</b>.</li> </ul>
<p align="center"><b>B</b></p>	<p align="center"><b>LOGSEren zikloetako irakaskuntzak gainditu ditu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Enpresa eta ekimen sortzaileko modulua BALIOZKOTUKO da <b>edozein arlo eta mailatarako</b>, baldin eta LOGSEren edozein ziklotan Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea izeneko modulua GAINDITUTA badauka.</li> <li>▪ Kasu hauetan BALIOZKOTUKO da <b>erdi-mailako Enpresa eta ekimen sortzaileko modulua</b>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Saltegi txikien administrazioa eta kudeaketa.</i> EM: Merkataritza (arloan: Merkataritza eta Marketina).</li> <li>○ <i>Nekazaritzako familia-ustiapenen antolamendua eta kudeaketa.</i> Nekazaritzaren arloko erdi-mailako edozein ziklo.</li> <li>○ Administrazio-kudeaketako ziklo osoa.</li> </ul> </li> <li>▪ <b>Goi-mailako Enpresa eta ekimen sortzailea BALIOZKOTUKO DA</b>: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Astiaaldiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.</i> GM: Animazio soziokulturala (Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak). GM: Jarduera fisikoen eta kirolen animazioa (Jarduera fisikoak eta Kirolak). GM: Animazio turistikoa (arloan: Ostalaritza eta Turismoa).</li> <li>○ <i>Bidaia-agentzien antolamendua eta kontrola.</i> GM: Bidaia-agentziak (arloan: Ostalaritza eta Turismoa).</li> <li>○ <i>Jatetxeen administrazioa.</i> GM: Jatetxe-arloan (arloan: Ostalaritza eta Turismoa).</li> <li>○ <i>Ortoprotesikako kabinete edo unitateen administrazioa eta kudeaketa.</i> GM: Ortoprotesika (arloan: Osasungintza).</li> <li>○ <i>Hortz-protesietako kabinete edo unitateen antolamendua, administrazioa eta kudeaketa.</i> GM: Hortz-protesiak (arloan: Osasungintza).</li> <li>○ <i>Audioprotesietako kabineteen administrazioa eta kudeaketa.</i> GM: Audioprotesiak (arloan: Osasungintza).</li> <li>○ <i>Nekazaritza-enpresen antolamendua eta kudeaketa.</i> GM: Natura- eta paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamendua (AGA). GM: Nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresen kudeaketa eta antolamendua (Nekazaritza).</li> <li>○ <i>Administrazioiko eta Finantzetako ziklo osoa</i> (<i>ikus azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren III. eranskina, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan</i>).</li> </ul> </li> </ul>
<p align="center"><b>C</b></p>	<p align="center"><b>LOGSEren aurreko ikasketak egin ditu.</b></p>	<p><b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p> <p>Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>
<p align="center"><b>D</b></p>	<p align="center"><b>Profesionaltasun Ziurtagiriak edo Egiaztapen partzial metagarriak</b></p>	<p><b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.</p>
<p align="center"><b>E</b></p>	<p align="center"><b>Unibertsite-ikasketak</b></p>	<p>Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango.</p> <p>Halakoetan, zentroko zuzendariaren bidez igor daiteke baliozkotze-eskaera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak ebatz dezan.</p>

<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura</b>	<p>Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango modulu honetan.</p> <p><u>Erne</u>: <b>zenbait titulutan</b>, profileko kompetentzia-atal <b>GUZTIAK</b> egiaztatuta edukiz gero (uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera) eta, gainera, EAEn <b>tituluetako bakoitza arautzen duten dekretuetan ezarritako eskakizunak betez gero</b> (9. artikulua, erdi-mailako zikloen kasuan, eta 10. artikulua, goi-mailako zikloen kasuan), <b>Enpresa eta Ekimen Sortzaileko modulua baliozkotzea</b> eskatu ahal izango da.</p>
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>MP0156 INGELESA; erdi-mailako zikloa - LOE</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako irakaskuntzak</b> gainditu ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>MP0179</b> modulua gaindituta badauka.</li> </ul>
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako irakaskuntzak</b> gainditu ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Atzerriko hizkuntzako</b> modulua egin eta gainditu izana, ingelesekoa bada eta 65 orduko iraupena badu, tituluak ezartzeko errege-dekretuen arabera.</li> <li>▪ Goi-mailako heziketa-zikloetako Atzerriko hizkuntzako lanbide-moduluak, izendapena edozein dutela ere, betiere baliozkotu nahi denaren berdina bada.</li> </ul>
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko ikasketak</b> egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ingeleseko oinarrizko zikloaren ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingeles-maila ertainaren ziurtagiria (B1)</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa).</li> <li>▪ <b>Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa). <i>(Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.5 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).</i></li> <li>▪ <b>Ingeles Filologiako edo Itzulpengintza eta Interpretazioko (ingelese) gradu-titulua edo baliokidea.</b></li> <li>▪ <b>Europako hizkuntzen esparruan B1 edo goragoko maila bat egiaztatzen duen ingeleseko edozein ziurtagiri.</b></li> </ul>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	Zuzenean <b>EZ</b> da baliozkotzerik emango modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzekeo prozedura</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>MP 0179 INGELESA; goi-maila - LOE</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	Oro har, <b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Hartu gogoan lehenago ikasketa horiek eginda eta gaindituta eduki ditzakeela. Beste ziklo batean matrikulatuz gero, moduluaren nota eramango da hartara.
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Atzerriko hizkuntzako</b> modulua (<b>ingeleza</b>) egin eta gainditu izana.</li> <li>▪ <b>Atzerriko hizkuntzako</b> modulua, ingelesekoa bada eta 90 orduko iraupena badu, tituluak ezartzeko errege-dekretuen arabera.</li> <li>▪ <b>Nazioarteko Merkataritzako Atzerriko hizkuntza</b>, ingeleza bada.</li> </ul>
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko</b> ikasketak egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa). <i>(Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.5 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).</i></li> <li>▪ <b>Ingeles Filologiako edo Itzulpengintza eta Interpretazioko (ingeleza) gradu-titulua edo baliokidea.</b></li> <li>▪ <b>Europako hizkuntzen esparruan B2 edo goragoko maila bat egiaztatzen duen edozein ziurtagiri.</b></li> </ul>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>MP 0180 - Atzerriko bigarren hizkuntza</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	Oro har, <b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Hartu gogoan lehenago ikasketa horiek eginda eta gaindituta eduki ditzakeela. Beste ziklo batean matrikulatuz gero, moduluaren nota eramango da hartara.
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Atzerriko bigarren hizkuntza</b>, goi-mailakoa, betiere baliozkotu nahi denaren berdina baldin bada.</li> </ul>
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko</b> ikasketak egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atalari loturiko heziketa-modulua gainditu izana egiaztatzen badu.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Oinarrizko zikloaren ziurtagiria edo gaitasun-ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa), baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena.</li> <li>▪ <b>Tarteko mailaren (B1) edo goragoko baten ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa), baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena. <i>(Azaroaren 7ko ECD/2159/2014 Aginduaren 3.5 artikulua, urriaren 26ko ECD/1055/2017 Aginduaren bidez emandako idazkuntzan).</i></li> <li>▪ <b>Filologiako edo Itzulpengintza eta Interpretazioko gradu-titulua edo baliokidea</b>, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena.</li> <li>▪ <b>Europako hizkuntzen esparruan B1 maila edo goragoko bat egiaztatzen duen edozein ziurtagiri</b>, baliozkotu nahi den atzerriko hizkuntzarena.</li> </ul>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura</b>	<b>BAI</b> , baldin eta dagokion konpetentzia-atala egiaztatzen badu.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>E100 - INGELES TEKNIKO (erkidegoarena)</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren ZIKLOETAKO</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>E200</b> modulua gaindituta badauka.</li> </ul> Entzuteko desgaitasuna dutenek salbuespen osoa edo partziala eskatu ahal izango dute. Hartu gogoan beste ziklo bateko E100 modulua gaindituta izanez gero, baliozkotu beharrean, aurrekoan ateratako nota eramango dela.
<b>B</b>	<b>LOGSEren ZIKLOETAKO</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko</b> ikasketak egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaptapen partzial metagarriak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ingelesko oinarrizko zikloaren ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingeles-maila ertainaren ziurtagiria (B1)</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa).</li> <li>▪ <b>Ingelesko gaitasun-ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingelesko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa).</li> <li>▪ <b>Ingeles Filologiako edo Itzulpengintza eta Interpretazioko (ingeleza) gradu-titulua edo baliokidea.</b></li> <li>▪ <b>Europako hizkuntzen esparruan B1 edo goragoko bat maila egiaztatzen duen ingeleseko edozein ziurtagiri</b> (otsailaren 26ko 32/2006 Dekretuaren 27.7 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua).</li> </ul>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura</b>	Zenbait titulutan, baldin eta tituluaren konpetentzia-atal <b>guztien</b> egiaztapena aurkezten bada (Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren araberrako prozeduraren bidez lortutako konpetentzia-atalak betiere) <b><u>eta EAEko titulu bakoitza arautzeko dekretuen bidez ezarritako baldintzak betetzen badira</u></b> (9. artikulua, erdi-mailako heziketa-zikloetarako eta 10. artikulua goi-mailako zikloetarako), <b>Ingeles tekniko</b> ko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango da.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>BAI</b>, kasu honetan <b>salbuesteko</b> arrazoa da 21 urtetik gorakoentzat, baldin eta hiru urteko lan-esperientzia izan badute eta baldin eta KEEren bidez (1224/2009 EDn araututako prozeduraren bidez) edo enplegurako prestakuntzaren bidez zikloaren iraupenaren gutxienez % 50 osatzen duten konpetentzia-atalak egiaztatuta baditu edo moduluak gaindituta baditu.</li> </ul>
<b>I</b>	<b>BAI</b> , kasu honetan <b>salbuesteko</b> arrazoa da heziketa-zikloan lehenengoz matrikulatzen diren urte naturalean 45 urte betetzen dituzten pertsonentzat, eta hortik gorakoentzat.	

	Interesdunak...	Baliozkotu daitezkeenak: <b>E200 - INGELES TEKNIKO (erkidegoarena)</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren ZIKLOETAKO</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	Oro har, <b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan. Hartu gogoan beste ziklo bateko E200 modulua gaindituta izanez gero, baliozkotu beharrean, aurrekoan ateratako nota eramango dela. Entzuteko desgaitasuna dutenek salbuespen osoa edo partziala eskatu ahal izango dute.
<b>B</b>	<b>LOGSEren ZIKLOETAKO</b> irakaskuntzak gainditu ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko</b> ikasketak egin ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaptapen partzial metagarriak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Ingeleseko gaitasun-ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (967/1988 ED, irailaren 2koa).</li> <li>▪ <b>Ingeleseko maila aurreratuaren (B2) edo goragoko baten ziurtagiria</b>, hizkuntza-eskola ofizialarena (1629/2006 ED, abenduaren 29koa).</li> <li>▪ Ingeles Filologiako edo Itzulpengintza eta Interpretazioko (ingelesa) gradu-titulua edo baliokidea.</li> <li>▪ <b>Europako hizkuntzen esparruan B2 edo goragoko maila bat egiaztatzen duen edozein ziurtagiri.</b> (Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27.7 artikulua, otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatua).</li> </ul>
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura</b>	Zenbait titulutan, baldin eta tituluaren konpetentzia-atal <b>guztien</b> egiaztapena aurkezten bada (Lan-esperientziaren bidez hartutako konpetentzia profesionalak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuaren arabeko prozeduraren bidez lortutako konpetentzia-atalak betiere) <b>eta EAEko titulu bakoitza arautzeko dekretuen bidez ezarritako baldintzak betetzen badira</b> (9. artikulua, erdi-mailako heziketa-zikloetarako eta 10. artikulua goi-mailako zikloetarako), <b>Ingeles tekniko</b> ko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango da.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>BAI</b>, kasu honetan <b>salbuesteko</b> arrazoia da 21 urtetik gorakoentzat, baldin eta hiru urteko lan-esperientzia izan badute eta baldin eta KEEren bidez (uztailaren 17ko 1224/2009 EDn araututako prozeduraren bidez) edo enplegurako prestakuntzaren bidez zikloaren iraupenaren gutxienez % 50 osatzen duten konpetentzia-atalak egiaztatuta baditu edo moduluak gaindituta baditu.</li> </ul>
<b>I</b>	Halaber, salbuetsi egingo dira heziketa-zikloan lehenengoz matrikulatzen diren eta urte natural horretan 45 urte betetzen dituzten pertsonak, eta hortik gorakoak.	



	Interesdunak...	<b>LANTOKIKO PRESTAKUNTZA - LOE</b> (2/2006 Legearen babesean)
<b>A</b>	<b>LOEren zikloetako irakaskuntzak</b> gainditu ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>B</b>	<b>LOGSEren zikloetako irakaskuntzak</b> gainditu ditu.	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>C</b>	<b>LOGSEren aurreko ikasketak</b> egin ditu.	Oro har, <b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>D</b>	<b>Profesionaltasun Ziurtagiriak</b> edo <b>Egiaztapen partzial metagarriak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>E</b>	<b>Unibertsitate-ikasketak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>F</b>	<b>Beste herrialde batzuetan eskuratutako tituluak</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>G</b>	<b>Konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura</b>	<b>EZ</b> da baliozkotzerik aplikatuko modulu honetan.
<b>H</b>	<b>Lan-esperientzia</b>	<b>BAI</b> , kasu honetan salbuespena eragin dezake, <b>partziala edo osoa</b> , lanaldi osoan gutxienez urtebetez jardun izan badu (lan-esperientzia egiaztagiri ofizial baten bidez frogatua) matrikula egin duen profilarekin lotutako jarduera batean. Zentroko zuzendariak ematekoa da, ezarritako araudiaren arabera eta interesdunak hala eskatuta.

# LANBIDE-HEZIKETA

## DATU PERTSONALAK

NAN / AIZ / Pasaportea: .....	Izena: .....	
Abizenak: .....	.....	
Helbidea: .....		
Posta kodea: .....	Herria: .....	Probintzia: .....
Tel. finkoa:.....	...Tel. mugikorra: .....	...Posta elektronikoko helbidea: .....

## INSTITUTU EDO PRESTAKUNTZA-ZENTRO ESKUDUNAREN DATUAK:

Izena: .....		
Helbidea: .....		
Posta kodea: .....	Herria: .....	Probintzia: .....
Tel. finkoa:.....	... Tel. mugikorra:.....	... Posta elektronikoko helbidea:.....

## MATRIKULATUTA DAGOEN HEZIKETA-ZIKLOA:

..... (Markatu dagokiona) LOGSE  
LOE

MAILA: .....

## AURKEZTUTAKO IKASKETAK (adierazi zeintzuk: LOGSE/LOE/Unibertsitate-ikasketak/Bestelakoak):

.....  
.....

ESKATUTAKO LANBIDE-MODULUAK (izena akatsik gabe adierazi behar da; LOEren lanbide-moduluaren kasuan, titulua ezartzen duen errege-dekretuan ageri den kodea adierazi behar da):

.....  
.....  
.....

ESKATZAILEAREN SINADURA ETA DATA:

## HEZKUNTZA-ZENTROAK BETETZEKO:

..... jaunak/andreak, zentroko zuzendaria den aldetik, egiaztatzen du zuzenak direla eskaera honetan aipatutako datuak.

Zuzendaria:

.....(e)ko .....aren .....(a).

(Zentroaren ZIGILUA)

Sinatzailea: .....

## ATXIKI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Aurkeztutako ikasketen ziurtagiri akademiko ofiziala, zentro ofizial batek emandakoa (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua).
- Unibertsitate-ikasketen kasuan, ikasgaien programak, unibertsitateak zigilatuta (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua).

ZENTROKO ZUZENDARIA: .....